

BILBOKO UDALAK MUSIKA-MÚSICA JAIALDIAREN 25. EDIZIOA AURKEZTU DU, MARTXOAREN 6, 7 ETA 8AN OSPATUKO DENA

- Musika-Músicak 25 urteko ibilbidea ospatuko du hiru egunean 69 kontzertu bilduko dituen edizio batekin, eta berriro ere Bilbo musika klasikoaren topagune bihurtuko du, errepertorio sinfoniko eta ganberakoaren obra handiak, familia-proposamenak, musika eta zinema eta bestelako jarduerak barne hartuko dituen programazioarekin.
- Irekiera-kontzertua martxoaren 6an, ostirala, izango da Arriaga Antzokian, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren (BOS) eta Bilboko Koral Elkartearen eskutik, François López-Ferrer zuzendari dutela; J. C. Arriagaren “*Sinfonía en re menor*” interpretatuko dute haren 200. urteurrena dela-eta, baita G. Bizeten “*Te Deum*” ere
- Jaialdiaren gainerako kontzertuak Euskalduna Jauregian garatuko dira, aldi bereko emanaldiekin hainbat aretotan eta formatu desberdinetan, gutxi gorabehera 45 minutuko iraupenarekin.

(*Bilbo, 2026ko otsailaren 9a*).- Bilbao **Musika-Música** jaialdiaren edizio berri bat hartzeko prestatzen ari da. Bilboko Udalak antolatutako musika klasikoko jaialdi honek aurrean 25. edizioa betetzen du, eta hiriko kultur ekitaldi nagusietako bat bezala sendotuta dago. **Martxoaren 6tik 8ra, Euskalduna Jauregiak guztira 69 kontzertu hartuko ditu**, publikoari musikaren historiako obra eta konpositorerik adierazgarrienetako batzuen ibilbide zabala ezagutzeko aukera emanez.

Irekiera-kontzertua **martxoaren 6an, ostiralez, 19:00etan izango da Arriaga Antzokian, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren (BOS) eta Bilboko Koral Elkartearen eskutik, François López-Ferrer zuzendari dutela. J. C. Arriagaren “*Sinfonia en re menor*” interpretatuko dute, Bilboko konpositore unibertsalenetako baten heriotzaren 200. urteurrena dela eta, baita G. Bizeten “*Te Deum*” ere. Egun berean hasiko diren gainerako kontzertuak Euskalduna Jauregian egingo dira.**

Bilboko alkateak, **Juan Mari Aburtok**, Kultura eta Gobernantza zinegotziak, **Gonzalo Olabarriak** eta jaialdiko zuzendariak, **Begoña Escribanok** gaur aurkeztu dute MUSIKA-MÚSICAREN programazioa Arriaga Antzokian; Estatu osoan, ezaugarri hauek dituen jaialdi bakarra da. Musika-Música hasieratik mantendu du bere izaera eskuragarri eta herrikoia. 25 urte hauetan zehar, jaialdia kultura-proiektu sendo gisa finkatu da, musika klasikoaren publiko anitzengana hurbilduz eta Bilboren proiektio kulturala indartuz.

Prentsaurrekoan iragarri dutenez, edizio honek berriro ere nazioarteko ibilbide luzeko orkestra sinfonikoak eta ganberakoak, laukoteak eta hirukoteak bilduko ditu. Jaialdiak aurreko edizioetan arrakasta izan zuten interpreteak berriro hartuko ditu, baina baita lehen aldiz MUSIKA-MÚSICAn parte hartuko duten musika talde berriak ere.

Juan Mari Aburto alkateak gogorarazi duenez: *“mende laurden batetik gure nortasun kulturalaren parte den hitzordu musikal baten aurrean gaude, eta Bilbok musika ulertzeko eta bizitzeko duen moduaren parte da. Urte hauetan guztietan, jaialdiak ez ditu soilik auditorioak bete; hiriarekin batera hazi da: Bilbo ireki, dinamiko eta sortzailea, kultura motor ekonomiko, bizikidetza, ongizate eta nazioarteko proiektio gisa ulertzen duena. Martxoaren 6tik 8ra, belarriak erne izango ditugu Musika-Músican”.*

Gonzalo Olabarriak, bere aldetik, jaialdiaren eskuragarriarekiko konpromisoa azpimarratu du: *“prezio eskuragarriak mantentzen dira, familia-jarduerak, kontzertu didaktikoak eta musika klasikora lehen aldiz hurbiltzen direnentzat pentsatutako proposamenak barne hartuta, baita adituentzat ere, Bilbon gozatzeko leku bat aurkitzen baitute. Ateak zabaltzea eta oztopoak apurtzea izan zen Musika-Músicaren sorrera gidatu zuen zutabeetako bat, eta gaur egun ere erabat indarrean jarraitzen du”.*

EUSKALDUNA JAUREGIAN ALDI BEREAN EGINGO DIREN KONTZERTUAK

Inaugurazio-kontzertua **Arriaga Antzokian** izango da; gainerakoak **Euskalduna Jauregian** garatuko dira, gutxi gorabehera **45 minutuko** kontzertu laburrekin eta aldi berean hainbat aretotan. Formatu horri esker, publikoak estiloak, garaiak eta proposamen desberdinak egun berean konbinatu ahal izango ditu, bere ibilbide musikal propioa diseinatuz.

Euskalduna Jauregiko Auditorioak **KONTZERTU SINFONIKO ETA KORALAK** bilduko ditu, obra ezagunenetan eta erreperitorio adierazgarrienean oinarritutako programazioarekin. Jaialdian zehar **Beethovenen** lanak interpretatuko dira, hala nola *“Concierto para piano y orquesta nº1”* edo *“Sinfonía nº 7 en la mayor opus 92”*; **G. Mahlerren** *“Sinfonía nº 1 en re mayor, ‘Titán’”*; **J. Brahmsen** *“Obertura trágica opus 81”*; **R. Wagnerren** *“Meistersinger, obertura do mayor”*, baita **S. Prokofiev**, **E. Elgar**, **R. Schumann**, **Txaikovski**, **Mozart** edo **R. Strauss** bezalako egileen obrak ere. Auditorioak amaiera-kontzertua izango du **Granadako Hiriko Orkestraren** eskutik, **Manuel de Fallaren** jaiotzaren **150. urteurrenari** eskainia, *“Noches en los jardines de España”* eta *“El amor brujo”* piezak interpretatuz.

0B Aretoa, ORKESTRA GANBERAKOAK ardatz dituen, jaialdira lehen aldiz datozen Europako formazioak hartuko ditu: **Franz Liszt Chamber Orchestra**, **Solistas de Zagreb**, **English Chamber Orchestra**, **Gli Incogniti**, besteak beste. Haien programak erreperitorio ganberakoaren obra giltzarriak jorratuko ditu, Vivaldi, Bach, L. Weiner edo G. F. Haendel bezalako egileekin.

0D Aretoa, MUSIKA SINFONIKOA hartuko duena, laukote eta hirukoteen kontzertuak eskainiko ditu Beethoven, Schubert edo Haydnen lanekin, jaialdian ohikoak ez diren proposamenekin batera. Nabarmena da **piano lau eskutara eta bi pianorako kontzertua**, **Dúo del Valle-ren** eskutik, baita **Collegium Musicum Madriden** parte-hartzea ere, **Martín Llade** narratzailearekin eta **Manuel Minguillón** laute-jotzaile eta zuzendariarekin. Talde

honek formatu berezia eskainiko du, **ahotsa, musika eta narrazioa uztartuz, J. Dowlanden** “*Canciones a cuatro voces. Semper Dowland, Semper dolens*”, interpretatuz.

0A Aretoan, Chopin, Mozart, Mendelssohn, J. Brahms edo J. M. Leclair bezalako egileen obrekin, **La Spagna** taldea arituko da; baita **Olatz Saitua sopranoa, Ainhoa Zubillaga mezzosopranoa** eta **Itxaso Sáinz pianista** ere; **Ensemble Galdós** taldeak, **Iván Martín zuzendaritzapean**, “*Café con Proust*” izeneko eszenaratzea aurkeztuko du. **Trío Camelot** eta **Luis Fernando Pérez pianista** ere arituko dira.

0E Aretoak FAMILIA-SAIOAK hartuko ditu, “*Lumina*” ikuskizun bera hiru emanalditan eskainiz, **Musbika Ensemble**-ren eskutik, baita konpositoreei eskainitako **MUSIKA ETA ZINEMA SAIOAK** egongo dira ere.

Beste behin ere, Estatuko 12 kontserbatorio eta musika-eskolak bat egingo dute Musika-Música jaialdiarekin, **Kioskoan** emanaldiak eskainiz.

ESPERIENTZIA MURGILTZAILEAK ETA PROPOSAMEN AUDIOBISUALAK

5H Terraza Aretoa kontzertuen aurreko trantsizio-gune gisa pentsatuta dago, publikoak aretora sartu aurretik geldialdia egin dezan. Entzungailuen bidezko hamar minutuko esperientzia murgiltzaile batek entzute indibiduala eta inguratzailea proposatzen du, ikuslea kontzertua modu kontzienteagoan bizitzeko prestatuz.

Bestalde, **0C Aretoak** kontzertu-grabaketan instalazio audiobisuala hartuko du, etenik gabe proiektatuta eta doako sarbidearekin lekua bete arte, jaialdia formatu eszenikotik harago zabalduz.

Musika-Música bere 25. urteurrenarekin bat eginez aurkezten dituen bi nobedade dira, jaialdia formatu eszeniko tradizioarekin haratago zabalduz.

JAIALDI ESKURAGARRIA ETA KALITATEZKOA

Musika-Músicak jaialdi herrikoia mantentzen du: prezio eskuragarriak eta iraupen laburreko kontzertuak, egun berean proposamen sinfonikoak, ganberakoak, familiarrak eta audiobisualak uztartzea ahalbidetuz. Formula horri esker, jaialdia ezinbesteko hitzordu bihurtu da bai musika klasikoarentzat bai genero honetara lehen aldiz hurbiltzen direnentzat.

SARREREN SALMENTA

MUSIKA-MÚSICA Jaialdiaren 25. edizio honetan, sarreraren salmenta Euskalduna Jauregiko leihatilan eta webgunean, musika-musica.bilbao.eus webgunean eta Arriaga Antzokiko leihatilan (inaugurazio-kontzerturako soilik) bakarrik egongo da eskuragarri, **otsailaren 12ko 12:00etatik aurrera**.

Sarreraren salneurriak hauek izango dira:

- Arriaga Antzokia eta Euskalduna Jauregiko Auditoriuma: 15 euro
- 0B aretoa: 12 euro
- 0D eta 0A aretoak: 9 euro
- Kiosko: 4 euro

SARE SOZIALAK:

- **AYUNTAMIENTO DE BILBAO:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **MUSIKA MUSICA:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

Informazio gehiago:

<https://musika-musica.bilbao.eus>

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO PRESENTA LA 25º EDICIÓN DEL FESTIVAL MUSIKA-MÚSICA, QUE SE CELEBRARÁ LOS DÍAS 6, 7 Y 8 DE MARZO

- **Musika-Música celebrará sus 25 años de trayectoria con una edición que reunirá 69 conciertos en tres días y que volverá a convertir a Bilbao en punto de encuentro de la música clásica, con una programación que recorre grandes obras del repertorio sinfónico y camerístico, propuestas familiares, música y cine, entre otros.**
- **El concierto inaugural tendrá lugar el viernes 6 de marzo en el Teatro Arriaga, con la actuación de Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) y la Sociedad Coral de Bilbao, bajo la dirección de François López-Ferrer, quienes interpretarán la obra de J.C. Arriaga, “Sinfonía en re menor”, con motivo de su 200 aniversario y el “Te Deum” de G. Bizet.**
- **El resto del festival se desarrollará en el Palacio Euskalduna, con actuaciones simultáneas en diferentes salas y formatos que tendrán una duración aproximada de 45 minutos.**

(Bilbao, a 9 de febrero de 2026).- Bilbao se prepara para acoger una nueva edición de **Musika-Música**, el festival de música clásica organizado por el Ayuntamiento de Bilbao, que alcanza este año su **25º edición** consolidado como uno de los grandes eventos culturales de la ciudad. **Del 6 al 8 de marzo, el Palacio Euskalduna** acogerá un total de **69 conciertos** que permitirán al público realizar un amplio recorrido por algunas de las obras y compositores más representativos de la historia de la música.

El concierto inaugural se celebrará el **viernes 6 de marzo a las 19:00 horas en el Teatro Arriaga de la mano de la Bilbao Orkestra Sinfónica (BOS) y la Sociedad Coral de Bilbao, bajo la dirección de François López-Ferrer. Interpretarán la obra de J.C. Arriaga, “Sinfonía en re menor”, con motivo del 200 aniversario del fallecimiento de uno de los compositores bilbainos más universales, y el “Te Deum” de G. Bizet.** El resto de los conciertos que comenzarán también ese mismo día, se llevarán a cabo en el Palacio Euskalduna.

El Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**; el Concejal de Cultura y Gobernanza, **Gonzalo Olabarria**; y la directora del festival, **Begoña Escribano**, han presentado hoy en el Teatro Arriaga la programación de MUSIKA-MÚSICA, el único festival del Estado con estas características y que mantiene su carácter accesible y popular desde sus inicios. A lo largo de estos 25 años, el festival se ha consolidado como un proyecto cultural que ha acercado la música clásica a públicos diversos y ha reforzado la proyección cultural de Bilbao.

Tal y como han anunciado en la rueda de prensa, esta nueva edición volverá a reunir a orquestas sinfónicas y de cámara, cuartetos y tríos, con una larga trayectoria internacional.

El festival volverá a acoger a intérpretes que deleitaron con sus actuaciones en ediciones pasadas, pero también habrá conjuntos musicales que se estrenan por primera vez en MUSIKA-MÚSICA.

El Alcalde **Juan Mari Aburto** ha recordado que *“estamos ante una cita musical que, desde hace un cuarto de siglo, forma parte de nuestra identidad cultural y de la manera en la que Bilbao entiende y vive la música. Durante todos estos años, el festival no solo ha llenado auditorios, sino que ha acompañado al propio crecimiento de la ciudad: una **Bilbao abierta, dinámica y creativa**, que confía en la cultura como motor económico, de convivencia, de bienestar y proyección internacional. Del 6 al 8 de marzo estaremos con oídos atentos en Musika-Música”*.

Gonzalo Olabarria por su parte, ha querido poner en valor “ese **compromiso con la accesibilidad** que tanto caracteriza al Festival: se mantienen los precios asequibles, con actividades para familias, conciertos didácticos y propuestas musicales pensadas para públicos que quizás se acercan por primera vez a la música clásica, como para personas que son expertas y que encuentran en Bilbao un lugar para disfrutar”. Asimismo, ha explicado que “este esfuerzo de abrir puertas y derribar barreras es uno de los pilares que guiaron el nacimiento de Musika-Música hace un cuarto de siglo y que hoy en día sigue plenamente vigente”.

MÚSICA SIMULTÁNEA EN EL PALACIO EUSKALDUNA

A excepción del concierto inaugural, que tendrá lugar en el Teatro Arriaga, Musika-Música se desarrollará íntegramente en el Palacio Euskalduna, con conciertos de aproximadamente **45 minutos** que tendrán lugar de forma simultánea en diferentes salas. Este formato permite al público combinar estilos, épocas y propuestas a lo largo del día, diseñando su propio itinerario musical.

El **Auditorio** del Palacio Euskalduna concentrará los **CONCIERTOS SINFÓNICOS Y CORALES**, con una programación centrada en obras especialmente reconocibles y representativas. A lo largo del festival se interpretarán composiciones de autores como **Beethoven**, con “*Concierto para piano y orquesta nº1*” o “*Sinfonía nº7 en la mayor opus 92*”; **G. Mahler** con “*Sinfonía nº 1 en re mayor, ‘Titán’*”; **J. Brahms** con “*Obertura trágica opus 81*”; **R. Wagner** con “*Meistersinger, obertura en do mayor*”; además de obras de compositores como **S. Prokofiev, E. Elgar, R. Schuman, Chaikovski, Mozart o R. Strauss**. El Auditorio culminará con un concierto de clausura de la mano de la **Orquesta Ciudad de Granada**, dedicado al compositor **Manuel de Falla** que se cumplen 150 años desde su nacimiento. Tocarà piezas como “*Noches en los jardines de España*” y “*El amor brujo*”.

La **Sala 0B**, dedicada a las **ORQUESTAS DE CÁMARA**, acogerá formaciones europeas que visitan por primera vez el festival. Estarán sobre el escenario agrupaciones como **Franz Liszt Chamber Orchestra, Solistas de Zagreb, English Chamber Orchestra, Gli Incogniti**, entre otros. Sus programas recorrerán obras clave del repertorio camerístico,

con composiciones de autores como **Vivaldi, Bach, L. Weiner** o **G. F. Haendel**, poniendo en valor la riqueza y diversidad de este formato.

La **Sala 0D**, centrada en la **MÚSICA SINFÓNICA**, acogerá conciertos de cuartetos y tríos, con obras de compositores como **Beethoven, Schubert o Haydn**, junto a propuestas menos habituales dentro del festival. Entre ellas destaca un **concierto de piano a cuatro manos, y para dos pianos** a cargo del **Dúo del Valle**, así como la participación de **Collegium Musicum Madrid**, con **Martín Llade como narrador** y **Manuel Minguillón al laúd y como director**. Esta formación ofrecerá un formato singular que amplía la experiencia del concierto tradicional al combinar voz, música y narración, a través de la interpretación de la obra de J. Dowland, *“Canciones a cuatro voces. Semper Dowland, Semper dolens”*.

En la **Sala 0A** con las notas de autores como **Chopin, Mozart, Mendelssohn, J. Brahms** o **J. M. Leclair** ofrecerá conciertos la agrupación **La Spagna**, así como la **soprano Olatz Saitua**, junto a la **mezzosoprano Ainhoa Zubillaga** y la **pianista Itxaso Sáinz**; **Esemble Galdós** bajo la dirección de Iván Martín con una puesta en escena titulada *“Café con Proust”*. También se subirán a la tarima el **Trio Camelot** y el pianista **Luis Fernando Pérez**.

La **Sala 0E** acogerá las **SESIONES FAMILIARES**, con un mismo espectáculo *“Lumina”*, programado en tres pases, de la mano de **Musbika Ensemble** además de las tradicionales **SESIONES DE MÚSICA Y CINE**, dedicadas a los compositores.

Una edición más, **12 conservatorios y centros de enseñanza musical de todo el Estado** se suman al programa de Musika-Música con actuaciones en el **Kiosko**.

EXPERIENCIAS INMERSIVAS Y PROPUESTAS AUDIOVISUALES

La **Sala 5H Terraza Aretoa** está concebida como un espacio de transición previo a los conciertos, pensado para que el público haga una pausa antes de entrar en la sala. A través de una **experiencia inmersiva** con auriculares, se propone una escucha individual y envolvente de diez minutos que invita a relajarse, calmar la mente y afinar el oído, preparando así al espectador para vivir el concierto de forma más plena y consciente.

Por su parte, la **Sala 0C Aretoa** acogerá una instalación audiovisual con grabaciones de conciertos que se proyectarán de forma continua, con acceso gratuito hasta completar aforo, ampliando el festival más allá del formato escénico tradicional.

Dos novedades que presenta Musika-Música coincidiendo con su 25 aniversario y ampliando así el festival más allá del formato escénico tradicional.

UN FESTIVAL ACCESIBLE Y DE CALIDAD

Musika-Música mantiene su vocación de festival popular, con precios accesibles y conciertos de corta duración, lo que permite combinar en una misma jornada propuestas sinfónicas, de cámara, familiares y audiovisuales. Una fórmula que ha convertido al festival en una cita imprescindible tanto para el público aficionado a la música clásica como para quienes se acercan a este género por primera vez.

VENTA DE ENTRADAS

En esta 25º edición del Festival MUSIKA-MÚSICA la **venta de entradas**, que estará disponible a partir del **jueves 12 de febrero a las 12.00 horas**, se realizará exclusivamente **en taquilla y web del Palacio Euskalduna, en la página web musika-musica.bilbao.eus, y en taquilla del Teatro Arriaga solo para el concierto inaugural.**

Los precios de las entradas serán:

- Teatro Arriaga y Auditorio del Palacio Euskalduna: 15 euros
- Sala 0B: 12 euros
- Salas 0D y 0A: 9 euros.
- Sala 0E: 8 euros.
- Kiosko: 4 euros.

REDES SOCIALES:

- **AYUNTAMIENTO DE BILBAO:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **MUSIKA MUSICA:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

Más información

<https://musika-musica.bilbao.eus>